


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 7a / 583. zenbakia



Ehungintza

Bergarari ospea eman zion sektoreak ez du momentu onik bizi


GOIKO ESTAZIOA: ERAIKINA BERRITUKO DUTE/6 • TXIRRINDULARITZA: LOKATZA TALDEA/10

Telleria Baserriko Jaia

Arrasate

Keramikagileen
Topaketa

- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...




maiatzak
6-7-8
eta 9

-Antolatzen du:



-Babesleak:



ATREBENTZIAEZPADA/ Adin berekoak elkartzeko egiten diren ospakizunetan parte hartzen duzu?



ENCARNA MORAL
30 urte

Ez. Gainera, ez dakit nire adinekoek inoiz egin duten ospakizunik. Antolatuz gero joango nintzatekeela uste dut. Izan ere, polita da adin berekoekin elkartzea urtean behin bada ere.



MIREN UGARTE
69 urte

Bai. Denok adin berekoak ez izan arren talde bat elkartzen gara urtero Pilarika egunean. Gainera, loterian jokatzeko dugu elkartzeko eta behin saria irabazi genuen.



XABIER ETXABE
48 urte

Ez. Ideia horrek ez nau bate-re erakartzen. Nire adinekoak zein diren badakit eta ezagunekin berba egiteko ez daukat zertan horrelako ospakizunetara joan beharrik.



GORKA CARVALLO
25 urte

Bai. Guk abenduan egin genuen azkena. Hiru edo lau urtetan egin gabe egon ondoren polita da aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzea. Giro polita egiten da, gainera.



JAVI GARCIA
39 urte

Ez. Lehenengo urtean joan nintzen baina geroztik ez. Kinto afariko eguna iristen denean beti esaten dut hurrengo urtean joango naizela baina gero ez naiz sekula joaten.



EMILIANA GOMEZ
52 urte

Bai. urtero ez naiz joaten baina noizean behin bai. Oso ohitura polita dela uste dut, batez ere 50 urte bete nitueneko ospakizuna berezia izan zen. Oso ongi pasatu izan dut beti.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAHARREN EGOITZAKO LORONTZIAK Zaharren egoitzatik deia jaso dugu aste honetan. Aurreko astean ezezagun batzuek hainbat lorontzi apurtu zituztela salatzen deitu dute. Hain zuzen ere, zaharren egoitzan dagoen eguneko zentroko lorontziak apurtu zituzten eta inguruan hustu zuten lorontzietan zegoen lurra. Horrelakorik berriro ez errepikatzea eskatzen dute. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /11

KULTURA /15

Ur kolektoreko lanak

Ur zikinen kolektorea jartzeko lanak 2005. urteko udan amaitzea aurreikusten da.

Herri Arteko Txapelketa

Bergarak Zarautz taldeari irabaziz Herri Arteko Txapelketako joaneko partiduetan, 2 eta 1.

Bertsoak gaztetxean

Plazatik gaztetxera bertso txapelketako saioa izango da zapatu gauean Bergarako gaztetxean.

ASTEKO DATUA

36,4

LITRO EURI JASO DIRA AZKEN EGUNOTAN

Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, euri dezente jaso dugu azken astean: 36,4 litro. Temperatura ohi baino baxuagoa izan da sasoi honetarako. Udaberriko epeltasuna faltan botatzen da.

BESTEKE SANA

“

Nire lanerako paisaia gisa erabiltzen ditut beste artisten lanak. Haiek in maitemintzen naiz, eta beraien lan

egiteko moduari erreparatzen diot. Bernarndo Atxagaren *Obabakoak* irakurtzean konturatu nintzen beste egile batzuen lanak har nitzakeela eta hortik abiatu nezakeela nire obra. Oteizaren kasuan bere lan zehatz baten inguruan aritu baino, euskal artearen historian utzi duen obraren filosofia nireganatu dut. Eskultura gisako kutxa txiki horiek oso oteizarrak direla uste dut; espazioa lantzeko moduan batez ere. Rodchenko konstruktibismoaren maisu handienetakoa da, eta Oporton haren lanen erakusketa bat ikusteko aukera eduki nuen eta obra bati argazkiak atera nizkion”
MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA / Artista
‘Berria’/04-04-30

BERAIEKDIÑO / Jose Angel Mikeo



Naziotasun zibikoa dela eta

Azken hauteskundeak pasa eta Joxe Mari gobernutik bota dutelako lasaitu ederra hartuta gabilta, hain gizon zeken, berekoi eta handiustekoa (eta bere lagunak) kendu ezkerordekoak derrigorrez hobeak izango direlakoan.

Baina badoaz lehen azalpentoak adieraziz oraingoak ere eta Joxe Mari- ren zabarkeria erabili gabe (talantea, tilin-talan), bi gauzak argitu didate nondik norakoa: Euskaldun batek bere euskalduntasun kulturalaz gain, politikoa ere gauzatu nahi badu, ezin du. Hori hiritartasun etnikoa omen da.

Espainola izan ezkeror, ostera, ez dago etnizismoaren arrastorik, hori hiritartasun "zibikoan" ei dago oinarritua, goi mailako izaera politikoa berau.

Arrazonamendu hauekin asper samar eginda nago. Izan ere, edozein gizataldek bere nortasun nazionala izanik, nortasun hori gogoak agintzen dion erara bideratu ezin badu,

oinarrizko eskubidea den autodeterminazio eskubidea ukatzen zaiola esan nahi du. Soil-soilik.

Argi esan gauzak eta ez ezkutatu ukapen hori euskal naziotasuna "etniko eskluientea" dela esanez. Hemengoa

Lituaniakoa bezain zibikoa izanik. Eta bide horretan dabil gobernu berria, ez hemen bakarrik, dagoeneko Saharako Errepublikako Demokratikoak ere etorkizun iluna dauka: sahararrak izan edo marokarrak izan. Hainbeste urtetan luzatutako

egoera bukaera tristea edukitzeko trantzean dago. Eta hori gobernu berriaren lehen astean Nazio Batuen erabakietan oinarriturik zebilela erabakiak hartzen uste bainuen... Iraketik tropak etxeratzeko bai, itxuraz, baina edozein herrialderi bere eskubideak onartzeko ez. Eta horiek ere Nazio Batuek onartutakoak dira. Baina itxuraz hor ere marokarra izatea "zibikoagoa" izango da...

“Euskaldun batek bere euskalduntasun kulturalaz gain politikoa ere gauzatu nahi badu, ezin du”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegia,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 7
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

ZAPATUA, 8
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA, 9
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA, 10
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA, 11
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA, 12
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA, 13
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedekar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegarieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:30. Moja Zaharrak Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30. Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30. Uzarraga Domekak: 10:00. Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
Santa Marina Domekak: 11:00, 13:00. Zapatuak: 19:00.	
Sierbak Lanegunak: 19:30	
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	
Elosu Domekak: 10:30.	
Ubera Domekak: 10:30.	
San Juan Domekak: 11:00.	
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1968AN JAIOTAKOEN AFARIA
1968an jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Antxonin jaiotzeko. Egunean bertan Sagarpe elkartearen elkartuko dira, 19:30ean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan: 3035 0009 1800 9110 9183.

1963AN JAIOTAKOEN AFARIA
1963an jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Azpeitxi jaiotzeko. Izenematea (10 euro), Ariznoa tabernan.

1958AN JAIOTAKOEN AFARIA
1958an jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Antxonin jaiotzeko. Afari egunean bertan elkartuko dira, 20:00etan. Izenematea (15 euro) Antxonin.

1927AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1927an jaiotako enafaria eguingo dute maiatzaren 22an Zumelaga jaiotzeko, 14:00etan. Izenematea (15 euro) Euskadiko Kutxan, hilaren 17ra arte.

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emailek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea eguaztenean, hilaren 12an, izango dela, Seminarioan, 18:30ean hasita.

MUSIKA ESKOLA
Musika Eskolan matrikula egiteko epea ekainera arte izango da zabalik. Argibideak 943 76 57 80 telefonoan.

JARDUNENAGENDA

IPUIN LEHIAKETA
Debagunek ipuin barregarrien lehiaketa deitu du. Lehen saria 450 euro da, eta Debagoieneko onenak 150 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 28ra arte izango da zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaiotekoa.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN


Errepide berria Epele eta Kanpanzar artean

Epele eta Kanpanzar arteko errepidea inauguratu zuten 1994ko maiatzaren 9an. Beasain eta Durango korridoreko errepide berriak 4.630 metroko luzera du. Lanen aurrekontua 1.500 milioi pezeta izan zen. Diputazioko eta Debagoieneko agintariak izan ziren inaugurazioan.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zuldarra"



Adoleszentzian gaztetzoei irten ohi zaizkien garauak.

GORKA ORTEGA

ASTEKOPELIKULAK

'EL REGRESO'

ZUZENDARIA: ANDREI ZVYAGINTSEV. AKTORIAK: VLADIMIR GARIN.

HARIA. Film errusiar honek harre-bera jaso zuen iaz nazioarteko hainbat jaialditan. Besteak beste, Venezian saritu zuten. Bi anaiaren inguruko gorabeherak azaltzen zaizkigu: haien bizitza goitik behera aldatuko da, urte-tan desagertuta egon den beraien aita azaltzen denean.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, maiatzaren 7an, 22:30ean, Nove-dades aretoan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'HERMANO OSO'

ZUZENDARIA: AARON BLAISE, ROBERT WALKER.

HARIA. Nagusiki gaztetzoei zuzendutako marrazki bizidunetako film honek harrera ona izan du ikusleen aldetik. Hiru anaietatik gazteena, Kenai izenekoa, hartz bihurtuko da. Handik aurrera, gizaki itxura berreskuratzen saiatuko da.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 17:30ean eta 19:30ean; domekan, 17:00etan eta martitzenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA 2 °C
Zapatua, 1

MAXIMOA 20 °C
Domeka, 2

ASTEKO EURIA (l/m²) 36,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	13 °C	10 °C	2,5 l/m ²
Eguena, 29	16 °C	8 °C	7,7 l/m ²
Egubakoitza, 30	16 °C	7 °C	0,2 l/m ²
Zapatua, 1	16 °C	2 °C	12 l/m ²
Domeka, 2	20 °C	6 °C	0,9 l/m ²
Astelehena, 3	13 °C	7 °C	3,2 l/m ²
Martitzena, 4	13 °C	9 °C	9,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

'LA VENTANA SECRETA'

ZUZENDARIA: DAVID KOEPP. AKTOARIAK: JOHNNY DEPP, JOHN TURTURRO.

HARIA. Mort Rainey idazlea ez da une onena pasatzen ari. Emazteak utzi egin du, eta ez du lortzen eleberrri berriko orrialderik idazterik. Horrez gainera, ero batek plagioa leporatuko dio...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



Argazkian, ur zikinen kolektorea jartzeko lanak, Torrekua eta San Antonio bitartean.

EDU MENDIBIL

GAIA/ XXXXX

Ur kolektoreko lanak 2005eko udan amaituko dituzte

EDU MENDIBIL

Ur zikinen kolektoreko lanak aurrera segitzen dute. Lanen aurrekontua 36 milioi euro ingurukoa da eta 2005eko udan amaituko dira. Mekolaldeko araztegia martxan jartzen denetik bost urtera bitartean Deba ibaiaren ekosistema birsortzea da helburua.

Ur zikinen kolektoreko lanak 2005eko udan amaituko dituzte. Azken hilabeteotan Altuna y Uria, Tecsa eta Sobrino enpresek dihardute lanekin eta herrian hainbat aldaketa sortu dituzte lanok. Esate baterako, Torrekua eta San

Antonio bitarteko errepide zatia eta Bergararik Eibarrerako Amillagako irteera ere itxita daude. Azken hau datozen egunotan zabalduko dutela adierazi dute udal iturriek. Torrekua-San Antonio tartea, berriz, uda partean zabaltzeko asmoa dago.

ARAZTEGIA, MEKOLALDEN

Esan bezala, hiru enpresa dabilta ur zikinen kolektoreko lane-kin. Altuna y Uriak Osintxutik Amillaga bitarteko tartean dihardu lanean; Tecsa enpresak San Juan eta Amillagako tartearen ardura dauka eta, azkenik, Sobrino enpresa herri barruan, Torrekua eta Labegarieta aldean

dabil lanean. Ur zikinak Mekolalden jarriko duten araztegiara bideratzea da aipatutako lanen helburua. Elgeta, Antzuola eta Bergarako ur zikinak bideratuko dira bertara eta behin tratatu ondoren, Deba ibaira itzuliko dira. Mekolalde-Torre etxean kokatuko dira araztegiko bulegoak. Behin araztegia martxan jartzen denetik bost urtera bitartean Deba ibaiaren ekosistema birsortzea da helburua.

Ur kolektoreko lanen aurrekontua, araztegia barne, 36 milioi inguru da, eta Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak ordainduko dituzte lanok.

Xabier Oregi 'Panti' bergarar presoak aske utziko dute zapatuan

E.M.

Xabier Oregi *Panti* bergarar presoak aske utziko dute zapatuan, maiatzaren 8an. *Panti*-k 22 urte daramatza herritik kanpo, bost urte erbestean eta azken 17 urteak Estatuko kartzeletan. 30 urteko kartzela zigorra jaso zuen, eta, besteak beste, Alcala, Almeria, Salto del Negro (Kanariar Uhartek), Lugo eta Murtziako espetxeetan izan da Xabier Oregi. *Panti*-ren familiak eguaztanean bertan jakin zuen zapatuan aske utziko dutela. Mari Jose bere arreba zera adierazi zigun eguaztanean: "*Panti*-rekin eta bere abokatuarekin hitz egin genuen eta

halaxe konfirmatu ziguten. Oso pozik gaude, gure artean izateko irrikaz gaude-eta".

2002. urtean, Estatuko kartzeletan 15 urte egiten zituen urtean, *Panti*-ren omenezko ekitaldia izan zen Udal Pilotalekuan.

ONGIETORRIA ZAPATUAN

Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, bihar, zapatua, ongietorria egingo zaio *Panti*-ri San Martin plazan, 20:00ak aldera. Jarraian harrerara luntxa izango da Artatsen. Bestalde, maiatzaren 22an *Panti* eta gainerako euskal presoek aldeko ekitaldia izango dela aurreratu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak.



Xabier Oregi Panti.

ARTXIBOA

Lendingeko langileak, akordioaren zain

E.M.

Mizpirualde Egoitzan azpi kontratutako langileek protestekin segitu dute astean zehar. Lan baldintzak hobetzea eskatzen diete Lending Service SL enpresako arduradunei. Atzo bertan berriz ere elkartzeoak ziren zuzendaritza eta langileen ordezkariak.

Mizpirualde Egoitzan azpi kontratutako Lending Service SL enpresako langileek protestak egin dituzte astean zehar. ELA eta LAB sindikatuak deituta, auto karabanak egin zituzten astelehen eta martitzenean eta eguaztenez, berriz, manifestazio jendetsua egin zuten herriko kaleetan. Ehun bat lagun elkartu ziren manifestazioan, Lendingeko langileei elkartasuna adierazteko.

HIRU ESKAERA

Hiru dira Lendingeko langileen aldarrikapenak: batetik lan

hitzarmen bakarra eskatzen dute Lendingeko langile guztiendako, egun diferentzia nabarmenak daudelako langile ezberdinen artean; bestetik, soldadari dago-kionez, gutxienekoa Garbitasunaren Gipuzkoako Hitzarmenak ezartzen duena izatea aldarrikatzen dute, gainerako kategoriei dagozkien igoerak aplikatuz; eta, azkenik, asteroko lan jarduna 35 ordukoa izatea eskatzen dute Lendingeko langileek. Enpresako arduradunekin hainbat bilera izan dituzte eta, atzo, eguena, berriro ere Lendingeko zuzendaritzarekin elkartzeoak ziren langileen ordezkariak. Beraz, egunotan jakingo da zuzendaritzak langileen eskaera onartzen duen ala ez. Sindikatuak baikor dira akordioa lortzeko. Akordioa lortu ezean, mobilizazioekin jarraitzeko eta protestak areagotzeko asmoa azaldu dute.

Lending enpresaren bitartez 54 lagun dabilta Mizpirualde egoitzan lanean.



EDU MENDIBIL

Lendingeko langileek eguaztenez egindako manifestazioko irudia.

LABUR

Pazkoetako sukaldaritza lehiaketarako izenematea kultura etxean egin daiteke

Pazkoetako sukaldaritza lehiaketarako izenematea maiatzaren 12ra arte izango da zabalik. Sukaldari bikoteek kultura etxean edo 943 77 91 58 zenbakian eman dezakete izena. Partaide guztiakin bilera egingo da maiatzaren 19an kultura etxean, 19:00etan.

Euskal abestiekin osatutako kantu liburuxka salgai jarri du Jardun elkarteak

Jardunek 40 euskal abestirekin osatutako kantu liburuxka osatu eta salgai jarri du. Liburuxka hauek lagunartean eta afarietan kantatzeko baliagarriak dira eta Pol-polen, Kortazarren eta Jardunen jarri dituzte salgai, 2 euroren truke. Bestalde, Pazkoetan jaietako zapiak aterako dituztela adierazi dute Jardunekoek.

Xipizaroren udalekuearako izenematea maiatzaren 19ra arte izango da zabalik

Xipizaro ludotekak uztailean antolatzen dituen udalekuearako izenematea maiatzaren 10etik 19ra bitartean izango da zabalik, Seminarioan.

Udalekuetan 2 urtetik DBHko 2. mailara arteko neska-mutikoei parte hartu ahal izango dute. Argibideak Xipizaro ludotekari, 943 76 23 76 telefono zenbakian.

KULTURA/Herriko musika taldeek erabiltzeko egokituko dute eraikina

Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektua, abian

E.M.

Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuen Udalak asteleheneko gobernu batzordean. Egun herriko hainbat rock taldeek erabiltzen duten eraikina egokituko 192.000 euro inguru bideratuko ditu Udalak.

Mikel Larrañaga Frias bergarar arkitektoak landutako proiektuaren arabera, herriko musika taldeendako hamar lokal izango dira Goiko Estazioko eraikinean. Eraikinak bi solairu izango ditu eta horietako bakoitzean bost gela eta komuna egongo da. Musika taldeendako lokalak 11,6 m² eta 12,15 m²-koak izango dira.

Gaur egun 15 talde inguruk erabiltzen dute Goiko Estazioa, euren entseguetarako. Joan zen martxoaren 22ko batzarrean, gobernu batzordeak rock taldeekin lokalaren erabileraren gainean sinatutako hitzarmena beste sei hilabetez luzatzea erabaki zuen. Hala ere, eraikina orokorrean eta teilatua bereziki egoera txarrean dira, eta eraikina berritzeko erabakia hartu du Udalak. Lanen aurrekontua 181.000 euro inguru da. Proiektu teknikoa idaztea, berriz, 10.400 euro kostatu da.

Udalak laster aterako du lehia-kerara Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektua. Udal iturrien arabera, uda ostean lanekin hastea da helburua.



ARTXIBOA

Herriko musika taldeek erabiltzen dute Goiko Estazioko eraikina.

Behin lanak egin eta gero, Udalak eta lokala erabiliko duten taldeek beste hitzarmen bat sinatuko dute. Gaur egun, lehen esan bezala, Bergara herriko hamabost talde inguruk dihardute Goiko Estazioan entseatzen.

ZABALOTEGI, ATZERATUTA

Goiko Estazioko eraikinaren berritzeak Zabalotegin egin beharreko lanen atzerapena ekarriko du. Udalak aspalditik dauka Zabalotegiko aretoa berritzeko asmoa, baina oraingoz Goiko Estazioari lehentasuna emango dio.



Herri barruko ur hornidura egiteko lanak, amaitzear

Herri barruko hainbat kale hankaz gora ditugu azken hilabeteotan. Bermeosolo enpresak dihardu ur hornidurako lanak egiten. Ur ihesaldi asko zegoela eta, Udalak lanok egitea erabaki zuen. Besteak beste, ur hoditeria berritzen dihardute, uralitazko hodiak kenduz eta haien ordez burdinazko hodiak jarritz. Aipatutako lanek 180.300 euro inguruko aurrekontua daukate.

Udako ikastaroen III. ekitaldia UNED zentroan

E.M.

Bergarako UNED ikastetxeak udako ikastaroen eskaintza plazaratu du. Aurtengoa udako ikastaroen III. ekitaldia izango da, eta ekaina eta uztaila bitartean hainbat gai jorratzeko aukera izango da. Ikastaro, tailer eta mintegiak dira tartean.

Bi dira udako ikastaroen helburu nagusiak: alde batetik, egungo arazoan hausnarketan laguntzea, eta, bestetik, hartzaileei hainbat diziplinako askotariko aktibitateak eskaintzea. Bergarako UNED ikastetxeak Gipuzkoako Kutzaren laguntza izango du ikastaroak aurrera ateratzeko. UNEDeko bertako irakaslee-

kin batera, ikastaroetan landuko diren arloetako espezialistek hartuko dute parte.

Esan bezala, ekainaren 22tik uztailearen 2ra bitartean izango dira ikastaroak. Besteak beste, *Hizkuntzaren Curriculumum Haur eta Lehen Hezkuntzan*, *Una introducción a la sociología de la cultura*, *Trena: iragana, oraina eta geroa* eta *Justo Garate o la integración de saberes* dira eskainiko diren ikastaroetako batzuk.

Matrikula egiteko epea ekainaren 5era arte izango da zabalik. Ikastaroen eskaintzaren berri www.uned.es/ca-bergara/udai-ikastaroak web orrian jaso dezakezue. Matrikula ere bertan egin daiteke.



ARTXIBOA

Ekainaren 22an hasiko dira udako ikastaroak Bergarako UNED ikastetxean.

LABUR

EHNA tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Irizar jauregian, goizean

Bai Euskal Herriari taldeak deituta, EHNA tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30etik 13:30era. EHNA egiteko interesa dutenek hiru argazki, errolda agiria (udal-letxean eskatu beharrekoa) eta 15 euro eraman beharko dituzte.

Eta datorren zapatuan, maiatzaren 15ean, berriro egin ahal izango da EHNA, ordu eta toki berean.

Irukurutzetako erromeria ospatuko dute oraingo domekan, maiatzaren 9an

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Irukurutzetako erromeria ospatuko da domekan, maiatzaren 9an. Goizeko hamaiketan meza izango da Pago Bedeinkatua eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dira han bildutakoen artean. Eguraldi txarra egiten badu, meza Atsedean Txaboletan izango da.

Bazkalostean, Nerea eta Aintzane trikitilariekin erromeria izango da Irukurutzetan.

Caritasek etxeko tresneria batzeko dei egiten du, hainbat familiaren etxeak janzteko

Hainbat familiaren etxebizitzak janzteko etxeko tresneria jasotzen dabil Bergarako Caritas giza erakundea. Beraz, erabiltzeko moduan dagoen tresneria eta emateko moduan duten herritarrei parte hartzeko dei egiten die Caritasek.

Kanpainan parte hartzeko interesa dutenek Caritasek Alkabetako lehen zenbakian (Sierbetan) duen bulegora edo 943 76 72 77 telefono zenbakira jo dezakete. Aldez aurretik, kanpainan parte hartzen dutenei eskerrak eman nahi dizkie Caritasek.

LANA/ Textil Narbaiza eta Movilla lantegiak itxi egin dituzte, eta 94 langile izan dira kaltetuak

Garai batean Bergaran sektore indartsua zen ehungintzak ez du momentu onik bizi

EDU MENDIBIL


Garai batean ehungintza enpresa mordo baziren herrian, gaur egun sektoreak ez du momentu onik bizi gurean. Azken asteotan ibilbide luzea zuten bi enpresa itxi dituzte Bergaran, Textil Narbaiza batetik eta Movilla lantegia bestetik.

1970eko hamarkadan hamabost lantegi inguruk ziharduten ehungintzan, Bergaran. Ehungintza sektorea 2.000 langile inguru izatera iritsi zen. Gaur egun, berriz, egoera bestelakoa da. Enpresa gehienek itxi egin dute eta Asaisa (Algodonera San Antonio Industrial Sociedad Anonima) Elorregiko lantegia da jardunean dagoen bakarretakoa. Bi izan daitezke sektorearen krisialdiaren arrazoi nagusiak: alde batetik, nazioarteko lehiakortasun ikaragarria (Asia aldekoa batik bat) eta, bestetik, garai berrietara egokitzeko ezintasuna. Esan bezala, otsailetik hona Movilla eta Textil Narbaiza itxi dituzte gure herrian, eta guztira 94 langile izan dira kaltetuak.

KRISIALDI LUZEA

Textil Narbaizak ezin izan dio aurre egin azken urteotako krisi egoerari. Textil Narbaizak bi lantegi zituen, bata Gasteizen eta bestea Bergaran, Mekolalden. Bergarako lantegian 71 langile ziren eta Gasteizen, berriz, 32 lagun. Azken sei hilabeteotan egoera jasanezina bilakatu da. Hori dela eta, enpresa ixtea erabaki dute. Eta langileen kontratuak bertan behera uzteko eskatu dute dagoeneko.

1960-1970eko hamarkadetan enpresa indartsua zen Hijos de Arturo Narbaiza. Sasoi hartan Tavesa sortu zuten Narbaizak, Lasagabasterrek eta Algodonarak, %33ko partaidetzarekin. 1980. urte inguruko krisiaren ondorioz, Lasagabasterrek itxi egin zuen, eta, Narbaizarekin akordioa egin ondoren, Tavesako %100ekin geratu zen Algodonera.



Textil Narbaizak bi lantegi zituen, bata Gasteizen eta bestea Bergaran, Mekolalden. Azken urteotan krisialdi gogorra bizi izan du enpresak.

nera. Gero, 1989an, beste hainbat enpresarekin Tavex taldea sortu zuen Algodonarak, eta besteak beste, Marokon lanean hasi zen.

1980ko hamarkadaren erdialdean gauzak okertzen hasi ziren Narbaizan, eta orduan bizi izan zuten langileek lehenbiziko ordainketa-etendura. Orduetik hona ahaleginak egin izan dira enpresa zulotik ateratzeko: Tavex taldean jardundako Jose Miguel Zaldo jarri zuten enpresaren zuzendaritzan, eta 2001ean, Hijos de Arturo Narbaiza eta Hilaturas de Bergara (Gasteizeko lantegia) itxi zituzten, eta Textil Narbaiza sortu, hutsetik hasteko asmoz. Hala ere, ahalegina bertan behera geratu da, krisiak jota.

LANGILEEI DIRUA ZOR ZAIE

Mekolaldeko lantegian 71 langile ziren. Iñigo Alberdi ELA sindikatuko ordezkariaren arabera, "egoera larria da, alde batetik, lan-

gile gehienek ez dutelako adin egokirik beste lan bat topatzeko, eta ehungintza sektorea ere ez da erreferentziarik onena. Horrez gainera, dirua zor zaie langileei, eta langileei dagokien diru guztia jasotzeko ahaleginak egingo ditugu".

MOVILLA OTSAILEAN ITXI ZUTEN

Urteagako Movilla lantegia otsailean itxi zuten. Zuzendaritzak azken urteotako emaitza txarrak argudiatu du enpresa ixteko, eta sindikatuen ustetan, berriz, ez da inbertsio nahikorik egin egoera horri buelta emateko. Kontuak kontu, lanerako arropak egiteari utzi dio Movillak. Bertan lanean ziren 23 langileetatik, bik aurre-erretiroa hartu dute eta gainerakoek indennizazioa jaso dute.

Movilla lantegiaren lursailetan etxebizitzak egiteko asmoa azaldu du Udalak.



Urteagako Movilla lantegian 23 langilek ziharduten.

 Bergara Errehabilitazio Fisioterapia Zentroa

MASAJEAK ETA ERREHABILITAZIOA

Hitzartutako aseguru berria:

 LAGUN-ARO

Matxiategi 5
Tel.: 943 76 02 03/76 25 70

 GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

 Maxim's

943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74


SAN MIGEL KARAKATEN AZALDU ZEN JAIETAN

Angiozartarrek San Migelen zeruratzea egin zuten jaietan, irailean. Kosta zitzaien santuaren berri jasotzea baina azkenean Sebero Perezek aurkitu zuen, Karakaten, perretxikotan zebilela. Perretxikotara joan eta santu bat aurkitzea ez da eguneroko gauza. Kontuak kontu, sari ederra eskuratu zuen Seberok, 160 euroko saria eman baitzioten San Migel topatzeagatik. Argazkian Sebero saria jasotzen Mila Elortza Angiozarko auzo alkatearen eskutik.



IPINTZAKO TEKNOLOGIA IKASLEAK PRAKTIKETAN

Miguel Altuna eta Ipintza Institutuek elkar lanean dihardute. Ondorioz, Ipintza Institutuko Lehen Batxilergoko Teknologia ikasleek Teknologia Miguel Altunan egin dituzte praktikak, ikasgaia hobeto lantzeko eta industri ikuspegi zabalagoa izateko helburuarekin. Guztira, 24 ikaslek egin dituzte praktikak, bi txandatan banatuta. Besteak beste, industri arloa alderdi praktikoa batetik ikusteko aukera izan dute. Tailer bat nola antolatzen den bertatik bertara ikusi dute. Irakasleen arabera, datorren ikasturtean ere lankidetzarekin aurrera egitea da.




ESPOLOIKO KIOSKOKO TABERNA ITXI

Espoloiko kioskoko taberna itxi egingo dute maiatzaren erdialdean. Sustraiak tabernaren ustiatzaileei kontratua ez luzatzea erabaki du udalak. Antza, tabernak ez ditu hainbat arau betetzen eta beraz taberna ixteko erabakia hartu dute. Hain zuzen ere, Udaleko Hirigintza Batzordearen eta Jaurlaritzako Osasun sailaren informeak taberna bertan egotearen kontrakoak izan dira. Beraz, azken urteotan Espoloiko ikurretako bat izan dena galduko da datozen egunotan.



MINGAINARITIRAKA



Dabid Fernandez

JAM ARETOKO LANGILEA

Algortakoa da Dabid, baina orain dela hiru urte pasatxo Jam aretoan lanean hasi zenetik Bergaran bizi da. 28 urte dauzka eta denetik egiten du Jam-en: barran egoten da, astean zehar bulegoan ere lan egiten du...

Noiz hasi zinen Jam aretoan lanean?

Orain dela hiru urte pasatxo.

Zein da zure lana Jam-en?

Denetik pixka bat: asteburuetan barran egoten naiz, aste osoan zehar bulegoan lan egiten dut...

Zure lanagatik, oso musikazalea izango zara, ezta? Ze musika mota duzu gustuko?

Bai, oso gustuko dut musika; bereziki, rock-and-roll musika gustatzen zait, baina baita beste musika mota batzuk ere: funka, punka, metal eta hardcorea, besteak beste.

Musika talde bat aipatzekotan?

Talde bakarra esatea ezinezkoa da; gutxienez, bi esan beharko nizkizuke: Fugazi, Social Distortion eta beste hamar bat.

Jam aretoa, kontzertuei dagokienez, erreferente garrantzitsua dugu Euskal Herrian. Zela lortu duzue hori?

Alde batetik, zorte handia izan dugula esan behar da; bestetik, lan handia egin behar da hori lortzeko.

Zela ikusten duzu musikaren egoera Euskal Herrian?

Zaila eta oso gogorra.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gustatzen zaizkidan musika talde mordoa zuzenean, kontzertuan, ikusi ahal izatea.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Nahiz eta musika kontzertu asko ikusi ahal izan, lanagatik, askotan, ezin izaten dut nahi adina disfrutat.

Zenbat disko dituzu etxean?

Sekula ez ditut kontatu, baina hiru edo lau zenbakiko zifra aterako litzateke, ziur.

Bizitzeko toki bat?

Baserri turismo baserri bat, hemen, Euskal Herrian.

Eta oporretarako?

Australia edo Asiako herrialderen bat.

Asteburu baterako plan ideala?

Neskalaguna eta biok bakarrik uharte batera joatea, eta Sunny Day Real Estate taldearen kontzertu batez gozatzea.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

PATXI MORENO

39 URTE / IGELTSEROA / SAN PEDRO DE ALCANTARA (MALAGA)

“Hamazazpi urte hauetan lauzpabost aldiz besterik ez naiz joan Bergarara bisitan”

AINTZANE IRIZAR

Aurreko astean bertan bete dira hamazazpi urte Patxi Malagara joan zenetik. Lan bila joan zen; hemen ezin aurkitu, eta lan hobe baten bila.

“Garai hartan, Depor tabernan lan egiten nuen; batez ere, asteburuetan egiten nuen lan; batzuetan, baita astean zehar ere”, azaldu digu. Baina lan hobe bat bilatzeko gogoia zuen eta aukera gutxi zegoen Bergara inguruan. Horrela, Malagara joatea erabaki zuen.

Aurrez ere egonda zegoen han: “Soldadutza bukatu nuenean, ostalaritzako ikastaro trinko bat egitera etorri nintzen Marbellara, eta sei hilabete egin nituen hemen; hortaz, ezagutzen nuen inguru hau”.

Esan bezala, orain dela hamazazpi urte, 1987. urtean, hain zuzen ere, berriro joan zen. “Hara iritsi eta bi egunera Puerto Banusko Sinatra tabernan hasi nintzen lanean. Ondo gogoratzen dut Maiatzaren Lehena zela lanean hasi nintzen eguna, Langilearen Eguna, hain justu”, azaldu digu Patxi.

Sinatra tabernan bost urte egin zituen, baina ordutik hona hainbat tokitan ibili da lanean: Sinatrako lana laga zuenean, bere taberna zabaldu zuen San Pedro de Alcantara herrian, baina ez zitzaion oso ondo joan: “Egia esan, uste dut ez nuela momenturik egokienean jarri negozioa, eta ezin izan nuen aurrera atera proiektu hura”.

Gero, apartahotel bateko jate-txearen eta tabernaren ardura hartu zuen; ondoren, berriro joan zen Puerto Banusera, hango pizzeria baten lan egitera.

“San Pedro de Alcantara Marbellatik sei kilometrora dago, kostan”

Urte batzutan pizzeriako ardura ibili zen lanean.

Azkenean, eraikuntzan lan egitea erabaki zuen: “dagoeneko aspertuta nengoen ostalaritzan lan egiteaz; izan ere, oso gogorra da, eta gainera, emaztea eta bi ume edukita...”, diosku Patxi. Horrela, gaur egun, igeltsero dabil lanean. Momentu honetan hotel handi bat eraikitzen dihardute, Esteponan. “Eraikuntzan lan asko dago gaur egun; gero eta gehiago dihardute eraikitzen hemen inguruan”, adierazi digu Patxi.

Patxi San Pedro de Alcantara herrian bizi da; Marbellatik sei kilometrora dago, kostan. “San Pedro eta Marbella oso ezberdinak dira; San Pedro herri bat da,

herri handi bat. Marbella eta Puerto Banus, berriz, aparteko mundu bat dira. Dena dela, orain dela hamabost bat urte diru gehiago zegoen Marbellan: jeki arabiarak eta horrelakoak ikusten ziren. Orain, masifikatzen ari da”, azaldu digu.

San Pedro de Alcantara ere haziz joan dela kontatu digu: “Gaur egun 40.000 biztanle ditu eta gora eta gora doa kopuru hori; gainera, mundu guztiko jendea bizi da hemen, Babelgo Dorrea dirudi. Urte askoan hemen bizi izan garenok, egia esan, ez zaigu gustatzen hainbeste jende etortzea eta herria masifikatzea”, azaldu digu.

Gustura bizi da Patxi Malagan: “Hemen ditut emaztea eta bi seme-alaba, Jara eta Alvaro, eta hauxe da nire tokia”. Argi dauka ez dela Bergarara itzuliko bizi izatera. Bisitan ere ez da askorik etortzen: “Hamazazpi urte hauetan lauzpabost aldiz joan naiz Bergarara; familia etortzen zaigu bisitan, baina gu oso gutxitan joaten gara”.

Lagunak, berriz, hasieran joaten zitzaizkion, baina, denborarekin, nork bere bizimodua egiten duenez, askorekin harremana galduta dauka.

Garai baten gehiago sumatzen zuen Bergararen falta, baina orain, dagoeneko ez. “Denbora, nahi eta nahi ez, kate guztiak apurtzeko gai da, eta nire herrimina ere apurtu egin du. Hala ere, joaten naizenean, gustura joaten naiz”.

Patxiren emazteari eta seme-alabei, batez ere, Euskal Herria asko gustatzen zaiela kontatu digu: “Horko paisaiarekin txundituta geratzen dira, hemengoaren oso ezberdina da eta”, esan digu.



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

TXIRRINDULARITZA

Lokatza Txirrindulari Eskolan 12 gaztek dihardute aurtengo denboraldian

Infantil mailako hiru txirrindulariek lasterketa izango dute zapatu arratsaldean Labegarrietako industrialdean

IRATI AGIRREAZALDEGI


Lokatza Txirrindulari Eskolako gazteek denboraldiko hainbat lasterketatan hartu dute parte dagoeneko. Aurten 15 txirrindularik dihardute Lokatza, eta iaiz baino gutxiago izan arren ilusiorik ez zaie falta.

Pello Garitano Lokatzako kidea-ren esanetan, "boladak izaten dira txirrindulari askok izena ematen dutena, eta hurrengoan, berriz, oso gutxi daude. Kadeteetan, esaterako, iaiz ia 200 kadete zeuden Gipuzkoan eta bi mailatan banatzen ziren; aurten, aldiz, 115 inguru baino ez daude eta denek batera hartzen dute parte. Baina kirolari federatuen kopuruak behera egitea ez da txirrindularitza bakarrik gertatzen, beste kirol batzuetan ere antzerakoa gertatu da".

Beharakadaren arrazoiari buruz galdetuta zera erantzun digu Garitanok: "Guraso asko beldur dira euren umeak errepidera bizikletaz irteteko, horregatik nahiago dute beste kirolen batean jardutea".

Hala ere, ilusioz ekin diote oraingo denboraldiari eta hiru txirrindulari talde daude aurten Lokatza.

Infantil mailan hiru txirrindulari baino ez daude: Mikel Urrutia, Harriet Umerz eta Xabier Martinez. Hirurek Pello Garitanoren esanetara dihardute. Aurtengo denboraldian bi lasterketatan hartu dute parte, Oñatin eta Elgoibarren.



Infantil mailan Mikel Urrutia, Harriet Umerz eta Xabier Martinez txirrindulariak daude aurten.

KADETE ETA GAZTE MAILETAKOAK

Kadeteen taldean lau txirrindularik dihardute Iker Sanchezen zuzendaritzapean: Unai Markiegik, Joseba Muguruzak, Asier Penabadek eta Iban Caballerok osatzen dute taldea.

Hauen denboraldiak abuztura arte iraungo du, eta jadanik hainbat lasterketa egin dituzte.


Gazte mailakoek Egoitz Gabilondo dute zuzendari eta taldean Gurutz Larrea, Josu Frutos, Ander Nafarrate, Unai Arantzabal eta Egoitz Arantzadi daude.

Gipuzkoan jokatu diren probarik gehienetan hartu dute parte, eta baita emaitza politak lortu ere. Gazte mailako denboraldia luzeagoa da, eta urria bitartean jarraituko dute pedalei eragiten.

Kadete mailakoek joan zen asteburuan Labegarrietako lasterketan hartu zuten parte. Gipuzkoako Txapelketa izan zen, eta 70 kilometroko ibilbidea euripean egin ostean, Joseba Muguruzak bergarar onenaren saria eskuratu zuen

INFANTIL MAILAKOEN LASTERKETA

Bestalde, zapatu honetan infantil mailako hiru txirrindulariek Bergaran dute lasterketa. Arratsaldean izango da proba Labegarrietan 16:30ean hasita. Gazte txoak ez dira errepidera irtengo, eta bertako industrialdean prestatutako 10 kilometrotik beherako ibilbidean gogor eman beharok diete pedalei bergararrek, herrian bertan daukaten maila erakutsi nahi badute.



Unai Markiegi, Joseba Muguruza, Asier Penabad eta Iban Caballero Iker Sanchez zuzendariarekin.



Gurutz Larrea, Josu Frutos, Ander Nafarrate, Unai Arantzabal, Egoitz Arantzadi Egoitz Gabilondo zuzendariarekin.

Ariznoako gimnastak Gipuzkoako Txapelketan

I.A.

Ariznoa taldeko gimnastak hitzordu garrantzitsua dute asteburu honetan. Bihar, zapatua, maiatzaren 8an, Gipuzkoako Gimnasia Erritmiko Txapelketa izango da jokoan. A mailako gimnastek goizez eta arratsaldean izango dituzte probak Ibarako kiroldegian.

TALDEKA ETA BAKARKA

Ariznoako neskek taldeka zein bakarka jardungo dute. Gazte mailako taldeak mazoekin eta uztaiarekin egingo du taldekako proba eta bakarkakoa, berriz, mazoekin eta zintarekin. Taldea honako gimnasta hauek osatzen dute: Virginia Odriozolak, Maialen Legorburuk, Izargi Vegak,

Iraitz Gastiainek, Maialen Toledok eta Uxue Arregik.

Kadete mailako Irati Arteagak, Eider Carrascok, Lorea Albenizek, Sarai Ruizek eta Sarai Gallegok uztaiarekin eta sokarekin jardungo dute eta horietatik hiruk bakarka ere jardungo dute mazoekin eta uztaiarekin.

Pilotarekin eta esku libreen modalitatean alebin mailakoek hartuko dute parte. Usoa eta Lide Toledok, Jurdana Pildainek, Ainara Amorsek eta Ainhoa Martinezek. Azken honek izan ezik beste guztiek bakarkakoan ere jardungo dute sokarekin eta esku libreen ariketan.

Bergarako gimnastok ongi prestatuta joango dira txapelketara, Sonia Corredera entrenatzailearekin ibilita.



Ariznoako 16 gimnastek Ibarako kiroldegian askotariko probak egingo dituzte.



Bergara Kirol Elkarteko pilotariak Herri Arteko eta Debarroko txapelketetan dihardute.

Bergararrek Herri Arteko Txapelketako lehen itzulia irabazi dute Zarauzko pilotarien kontra

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako pilotariak Herri Arteko Txapelketan jokatzen dihardute eta baita Debarroko Txapelketan ere. Bestalde, Gutierrez eta Muguruza Bergara Hiria torneoan ere ari dira buru-belarri.

Zarautzen kontra jokatu zuten bergararrek Herri Arteko Txapelketako lehen kanporaketa eta bi partidu irabazi zituzten. Bigarren itzulia, bueltakoa, Zarautzen jokatuko dute eta ezinbestekoa zaie Bergarakoei bi partidu irabaztea aurrera jarraitzeko, tantoen alde oso txikia baita.

Kadete mailakoek partidua irabazteko lan handia izan zuten. 15-21 galtzen joan ostean, buelta eman eta azkenean 22-21 amaitu zuten. Gazte mailakoek, ordea, ez zuten zorte bera izan, zarauztarrek maila hobea erakutsi eta 4-22 irabazi baitzieten. Nagusiek, berriz, 22-7 irabazi zuten.

DEBARROKO TXAPELKETA

Herri Artekoan ez ezik, Debarroko Txapelketan ere badihardute pilotari bergararrek.

Nagusiek txapelketako lehen itzulian partidu bakarra galdu dute. Gazte mailakoek ongi hasi zuten lehenengo itzulia hiru partidu irabaziz, baina hurrengo

hirurak galdu egin dituzte. Kadete mailakoek bi partidu galdu dituzte eta Antzuolakoak sailkapenean aurreratu badira ere, bigarren posturako lehian jardungo dute bergararrek Eskoriatzako pilotariekin.

BERGARA HIRIA

Bestalde, Bergara Hiria torneoan ere jokoan da. Gutierrez hurrengo faserako sailkatu da eta Muguruza datorren martitzenean jokatuko du. Jardunaldia 19:30ean hasiko da Udal Pilotalekuan eta Muguruza Bengoetxearekin bikotea osatuz Erroizenea eta Argoterren kontra jokatuko du final-laurdeneko partidua.

Unai Arantzabalek Segurako Santa Kruz proba irabazi du

I.A.

Joan zen domekan, maiatzaren 2an, Santa Kruz txirrindulari proba jokatu zen Seguran. Bertan Sumofic taldeko Unai Arantzabal txirrindulari bergararrak lehenengo postua eskuratu zuen.

Unai Arantzabal txirrindulari bergararrak lehenengo postuan amaitu zuen Seguran jokatutako Santa Kruz proba.

Arantzabalek 2 ordu 27 minutu eta 43 segundo behar izan zituen 86,6 kilometroko ibilbidea egiteko. Azken itzulian atzeko beste bi aurkarirekin batera aurrera egin zuen Arantzabalek eta esprintean irabazi zuen.

DENBORALDIKO BIGARREN GARAIPENA
Aurtengo denboraldian Gipuzkoako proba gehienetan hartu du



JUAREZ

Aurtengo denboraldian bi lasterketa irabazi ditu Unai Arantzabalek.

parte, Gipuzkoako selekzioarekin Britainian egon zenean izan ezik. Segurakoa bigarren garaipena izan da. Aurrez, Azpeitian,

lehenengo egin zuen. Legorretan ere podiumera igo zen, hirugarren tokian, eta Elgoibarren laugarren izan zen.

FUTBOLA

Zapatuan Ipintzan jokatuko dute kadete eta gazte mailako mutilek eta neska nagusiek

Bergara Kirol Elkarteko hiru taldek jokatuko dituzte partiduak zapatuan Ipintzan. Eguerdian, 12:00etan hasita, lehen mailako kadeteen taldeko mutilek Villabonakoak izango dituzte aurrez aurre. Arratsaldean, berriz, beste bi norgehiagoka izango dira. Ohorezko mailako gazteek Eibarko taldearen aurka jokatuko dute 17:00etan hasita. Nesken hamaikakoak, berriz, 19:00etan hasiko du Urkiren kontrako partidua. Gaiantzeko taldeek etxetik kanpora jokatuko dute asteburuan.

ESKUBALOIA

Gazte mailako mutilek denboraldiko partidu garrantzitsuenetako jokatuko dute domekan

Asteburu honetan hiru eskubalo partidu jokatuko dira Labegaraian. Bihar, zapatua, 18:00etan nagusi mailako neskek Ereintzaren aurka jokatuko dute. Kopako lehenengo norgehiagoka izango da eta Oreretako talde gogorra edukiko dute aurrez aurre. Domekan 11:00etan hasita kadete mailako neskek Legazpiko taldearen kontra jokatuko dute. 12:30ean, berriz, Arrate talde gogorra izango dute gazte mailako mutilek aurkari. Partidu oso garrantzitsua da, irabazleak lehenak gelditzeko eta finala jokatzeak aukera asko izango baititu.

SASKIBALOIA

Kadete mailako neskek domekan jardungo dute sailkapeneko azken taldearen aurka

Saskibalo denboraldia pixkanaka amaierara bidean doa, eta talde gehienek etxetik kanpo jokatuko dute asteburuan. Hala ere, izango da Bergaran saskibalo partidu bat ikusteko aukera. Kadete mailako neskek Internacional Zubiri Donostiako taldearen kontra jokatuko dute domekan 12:00etan Mariaren Lagundian. Bergarrendako ez da hain partidu zaila izango, aurkariak azkenak baitira sailkapen orokorrean. Denboraldiko azken aurreko norgehiagoka izango da domekakoa. Izan ere, azken jardunaldia datorren astean izango dute Eskoriatzan.

MENDIA

Pol-Poleko gazteek mendi irteera antolatu dute San Millan de la Cogolla eta Ezkaraira

Pol-pol Mendizale Taldeko gazteek irteera antolatu dute datorren maiatzaren 16rako. Egun guztirako irteera izango da Errioxara, San Millan de la Cogolla eta Ezkaraira, hain zuzen ere. Pol-polekoek herriko gazte guztiak gonbidatu nahi dituzte irteera honetan parte hartzera. Joan nahi dutenek txartelak aurrez erosi behar dituzte Pol-pol tabernan 10 euroren truke. Irteera, berriz, maiatzaren 16an, domekan, 07:30ean izango da autobus geltokian.

FUTBOLA

Athleticen lagunartekoek San Mamesera joango dira domekan partidua ikustera

Athletic futbol taldeak domekan, maiatzaren 9an, Albaceteren aurkako partidua jokatuko du San Mamesen 17:30ean. Hori dela eta, Bergarako Athletic-zaleek Bilbora joateko irteera antolatu dute. Goizeko hamarretan irtengo dira autobus geltokitik, eta Bilboko kaleetan txikiteoa egin ostean, Deustuan bazkalduko dute. Lagunarteko kideek urtero egiten dute San Mamesera irteeraren bat; beste bat, berriz, kanpora. Aurten Valladoliden izan dira.

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

18:00: A Ze Flaxa - Errotagain. Mongatxurra

19:00: Pagomendi - Mongatxurra. Teatekh

20:00: Torpedo Musakola - Teatekh. Pagomendi

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Lelhoak • Horma-armalruak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
010 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Etixerako ederrena, Zanguitun

%20ko deskontua oleo eta etxerako pinturetan

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu



Koloreak sortzeko makina

Paretetarako, zorurako, altzariak margotzeko...



ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea* Sintasola* Moksetak*
Paper pintatuak

Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak
Edredoiak **Kortinak** Toailak Izarak

*Salmenta eta etxean ipintzea.



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 19. alia

IEPA LAGUNOK!

Zelako pozik egoten naizen eguakoitzetan! Astero tarte-txo bat nerekin pasatzen dozuelako. Ia gaurko aliarekin bestiekin beste gozatzen dozuen!

A! Gogoratu hurrengo astian lehiaketia egongo dala!!!



URREZKO ARAUAK

- Zelako ondo pasau doten!
- Xabierrek eta Mirenek mendian ikusi nindduten



- ~~Que guai pasau doten!~~
- ~~Xabierrek eta Mirenek mendian ikusi zosten.~~



IGARKIZUNAK

Ezetz asmau!!!!

- 1 Bost seme-alaba dauzkat eta anaia biki-xa, elkarren antza daukagu eta larruzko jantzixa.
- 2 Berde jaio arren, hori moztu nindduten, gogor estutu ondoren, zuri saltzen naute. Zer da?
- 3 Bat bakarrik dago Bizkaixan bat baka rrik dago Araban Bilbon bi dare eta bat be ez Gasteizen. Igarriko dozu zer dan?

• ERANTZUNAK:

- 1.- eskularria.
- 2.- garxa.
- 3.- B letria.

JOLASA

Hondartzara aillegatu garenez....

Etxekuak borobillian jarriko zarete eta istorio bat kontatzen hasiko da bateren batek.

“Hondartzara aillegatu garenez..... egingo dogu.”

Berak nahi dabenian, isildu egingo da eta hurrengo jokalarixak jarraituko dau istorioarekin.

Horrela, nahi daben jokalarixak, istorioari bukaeria emon arte.

INKESTIA

Neskak eta mutillak elkarrekin jolasten dozue?



Aitzol Lenisoro
10 urte



Irati Lenisoro
8 urte



Maialen Marauri
9 urte

Errekreuan mutillekin eta neskekin jolasten naiz baiña gehixen bat mutillekin. Futbolian jokatzia eta ezkutaketan ibiltzia gustatzen jat. Game Boy makiñarekin jolasian egittia asko gustatzen jat.

Gehixenetan neskekin jolasten naiz. Asko gustatzen jat ezkutaketan ibiltzia. Futbolian jokatzia ez jat asko gustatzen. Atsaldetan danok batera ibiltzen gara. Neri patiñekin ibiltzia asko gustatzen jat.

Futbolian jokatzen ibiltzen naiz gehixenetan mutillekin eta neskekin. Poliziak eta lapurrak jolasian be askotan ibiltzen naiz. Atsaldetan futbolian, ezkutaketan eta patiñekin ibiltzen naiz.

AURREKO ASTEKO ERANTZUNAK:

- 1.- F
- 2.- E
- 3.- A
- 4.- G
- 5.- D
- 6.- B

E, TXO!

SAIO BEREZIA TXAPA IRRATIAN BARIKUAN

Barikuan, 23:00etan, saio berezia izango da Txapa irradian. Erraza al da Bergaran ligatzea? gaitzat hartuta mahaingurua egingo dute herriko hainbat gaztek *Ezdakitnun* saioko kideek moderatuta. Programa zuzenean emango dute barikuan eta astelehenean ordu berean errepikatuko da. Herritarrek telefonoz parte hartu ahal izango dute saioan 943 76 46 46 zenbakira deituta.

GAZTEEN PROIEKTUENDAKO DIRULAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak emango ditu gazte elkarteek asmatutako proiektu bereziak aurrera eramateko. Proiektuok ezin izango dira izaera akademikodunak izan eta plangintzak urtebete edo gehiagokoak eta berritzaileak izatea eskatzen da. Dirulaguntzen eskaera proiektua abian jarri baino bi hilabete lehenago egin beharko da. Informazio gehiago nahi duenak 943 48 24 30 zenbakira dei dezake edo helbide honetara jo: www.gipuzkoa.net/gazteria.

EMAKUMEEI BURUZKO ARGAZKI LEHIAKETA

Emakumeak lanbide ezberdinetan gai hartuta argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Udalak. Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan bidali ahal izango dira eta formatuari dagokionez gutxienez 18x24 eta gehienez 30x40 zentimetroko neurria izango dute argazkiek. Partaide bakoitzak ezin izango ditu hiru argazki baino gehiago bidali. Argibide gehiago Arrasateko udaletxera deituta: 943 77 09 00.

GUREGAIK/ GAZTETXOEN OLINPIADAK

Olinpiadak maiatzaren 15ean hasiko dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jardun Elkarteak laugarren aldiz antolatu ditu aurten gaztetxoek arteko olinpiadak. Maiatzaren 15ean hasi eta ekainaren 19ra bitartean izango dira jardunaldiak zapatu arratsaldeetan.

Aurten, gaztetxoek arteko olinpiadetan Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasle bergarrek har dezakete parte.

Zapatu arratsaldeetan, 16:00etan hasita izango dira probak maiatzaren 15etik ekainaren 19ra bitartean. Egun bakoitzean toki ezberdin baten elkartuko dira: plazan, seminarioan, Arri-zuriagan eta erretiratuen etxean.

Gaztetxoek gutxienez zortzi eta gehienez hamar laguneko taldeetan jardungo dute eta honako probetan hartuko dute parte: herri jolasetan, hockeyan, sukaldaritza probetan, bolotan, token, igelaren jokoan; eta, azkenik, orientazio proba ere izango dute.

IZENA ETA KAMISETA

Olinpiadetan parte hartuko duen talde bakoitzari izena ipini beharko diote kideek. Gainera, partaideek koadrilako blusarekin edo kolore bereko kamisetekin egin beharko dituzte probak.

Ekainaren 19rako puntu gehien eskuratu dituen taldeak egun bateko irteera irabaziko du. Bestalde, partaide guztien artean opariak zozketatuko dituzte.



Olinpiadetan 9 eta 11 urte arteko neska-mutilek hartuko dute parte.

LOTSABARIK/ Iñigo Arzelus

“Bertsolari izan nahi nuke etorkizunean”

I.A.

Bertsozalea da Iñigo, eta bertsotan ere jarduten du. Horregatik bat-batean erantzun die gure galderei. Hori du etorkizuneko amets, bertsolari izatea, eta horren berri kopla batekin eman digu Iñigok.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Abiadura moteltzeko bandak kenduko nituzke eta aparkaleku gehiago ipini.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Ez daukat ez irudi ezta pegatarik ere. Erabat garbi daukat karpeta.


- Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Día a día gorroto dut. *Goenkale*, berriz, hasi zenetik egunero ikusten dut.
- Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?
Higuingarriak dira Aznar eta konpainia. Anjel Alkainen umorea, berriz, gustuko dut.
- Zerk amorratzen zaitu?
Pertsonen faltsukeriak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Adiskidetasuna, besteei laguntzeko prest egotea, alegia.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Zaletasunekin gozatzeari eta egunean bizi izateari.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Bertutea, entzuten jakitea; akatsa, berriz, despistatua naizela.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Kasualitatez eta zorte apur batekin. Baina orain nik behintzat ez dut ligatzeko beharrik.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Daukadana. Ulertzen dakiena eta gustura sentiarazten nauena.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Karibera, neskalagunarekin.
- Etorkizunerako amets bat?
Bertsolaria izan nahi nuke/ eta bertsotan gozatu/ ilusioa badaukat baina/ gogor behar dut saiatu.



ADINA: 21 urte • IKASKETAK: Ingeniaritza • ZALETASUNAK: Ehiza eta bertsolaritza • LIBURU BAT: *Txakurra zeure laguna* • FILM BAT: *Días de futbol* • MUSIKA TALDEA: Fito y Los Fitipaldi • KIROL TALDEA: Real

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



BERTSOLARITZA/ Txapelketako finala Mutrikun jokatu da, maiatzaren 29an

'Plazatik gaztetxera' txapelketako bertso saioa bihar gauean Bergarako gaztetxean

EDU MENDIBIL

Plazatik gaztetxera egitasmoaren barruan, bertso saioa izango da bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Sei bertsolarik jardungo dute Mutrikuko finalerako sailkatzeko asmoz. Bertso saioaren aurretik afaria izango da gaztetxean.

Bertsolaritzak gune berriak irabazteko asmoz jarri dute abian **Plazatik gaztetxera** egitasmoa. Era berean, Deba ibarreko herrien arteko lotura sendotzea da beste helburuetako bat. Elgetan izan zen lehenbiziko saioa eta zapatuan Bergaran egingo denaren ondoren, hurrengo biak Deban (maiatzaren 14an) eta Mutrikun (hilaren 29an) izango dira. Mutrikuko finalean txapelketako sei onenak lehiatuko dira.

FINALA MUTRIKUN, HILAREN 29AN

Gorka Lazkano, Andere Arriola-bengoa, Peru Madalena, Jokin Labaien, Xabier Astigarraga eta Ander Lizarralde arituko dira bertsoan bihar, gaztetxean, 22:30ean. Bertso saioaren aurretik, afaria



IRATI AGIRREAZALDEGI

Besteak beste, Jokin Labaien arrasatearrak eta Xabier Astigarraga mutrikuarrak hartuko dute parte biharko saioan.

egingo da gaztetxean, 21:00etan.

Eskola arteko txapelketan jarduteko adinik ez duten eta plazaratzeko aukera gutxi duten ber-

tsolariak dabilta **Plazatik gaztetxera** txapelketan.

Esan bezala, finala Mutrikun izango da, maiatzaren 29an.

Enaitz Alustiza bergaratarak ez zuen finalerako txartela lortu ahal izan aurreko egubakoitzean, Elgetan.



Mikel Araiztegiren lana, sarituta

Bedelkarrek denda txikien inguruan antolatutako margo lehiaketan Mikel Araiztegi izan da irabazlea. Araiztegi 1.000 euroko saria eskuratu du. Era berean, Epaimahaiak Antton Arriilagari 300 euroko akzesita ematea erabaki zuen. 18 urteko beherakoan artean, berriz, ez dute lanik saritu. Guztira, 20 lan inguru jaso dituzte Bedelkarrekoek.

Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa kultura etxean ikusgai dago, domekara arte.

Hiru kontzertu izango dira asteburuan Jam aretoan

E.M.

Jam aretoan hiru kontzertu izango dira asteburuan: batetik, Perez eta La Loca Maria taldeak izango dira gaur, egubakoitza, 21:00etan. Perez taldea 1999an sortu zen eta *Algo para cantar* izenburuko diskoarekin arrakasta nabaria lortu zuten. Musika kritikariek Nacha Pop, Los Ronaldos eta Tequilaren estilorekin parekatu dituzte. Gaurko kontzerturako sarrerak 15 eurotan salduko dituzte. Jameko lehiatilan, berriz, 18 eurotan.

Bestetik, Cockney Rejects, Ostiada Oi! eta Suspenders tal-

deek joko dute bihar, zapatua, 22:00etan. Cockney Rejects-ek ibilbide luzea du. Beraiekin batera Suspenders bizkaitarrak eta gurean jarraitzaile dezente dituen Ostiada Oi! izango dira. Sarrerak 14 eurotan salgai daude.

PRIMAL FEAR DOMEKAN

Azkenik, domekan, Primal Fear eta Metallium taldeen kontzertua egongo da Amillagako aretoan, 20:00etan. Primal Fear momentuko heavy metal talderik arrakastatsuenetakoa dugu eta *Devil's ground* beraien azken diskoa aurkeztuko dute Bergaran. Sarrerak 20 eurotan salgai daude.

POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



ELGETA
Maialen Aranzeta
Maiatzaren 9an, 15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Ibabe
Maiatzaren 13an, 6 urte.
Urte askotarako!
Izeba eta sendiak.



ELGETA
Aitor Elgoro
Maiatzaren 8an, 4 urte.
Urte askotarako!
Ione eta etxeokak.



ELGETA
Ane Bretaña
Maiatzaren 7an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Andoni.



BERGARA
Ruth Mancho
Maiatzaren 5ean, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak,
lagunak eta Sara ahizpa.



BERGARA
Ander Barruso
Maiatzaren 12an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
betez ere Arritxu.



BERGARA
Eder Elkoroberezibar
Maiatzaren 9an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Gonzalez
Maiatzaren 9an, 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mariñe.



BERGARA
Julen Cabo
Maiatzaren 5ean, 3 urte.
Zorionak! Familiakoak eta
bereziki Unai.



BERGARA
Gotzon Jimenez
Maiatzaren 11n, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andoni Fernandez
Maiatzaren 10ean, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Oier Garayoa
Maiatzaren 12an, urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ELGETA
Andoni Errasti
Maiatzaren 5ean.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Uxue Agirre
Maiatzaren 5ean, 11 urte.
Urte askotarako!
Elgetako familian partez.



BERGARA
Oier Uribesalgo
Maiatzaren 7an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Barragan
Maiatzaren 10ean, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Jon anaia.



ANTZUOLA
Maitane Goñi
Maiatzaren 10ean, 23 urte.
Urte askotarako!
koadrila.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA.
Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXEIA, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko maiatzaren 7a / 201. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Durango-Zumarraga trenbidearen gaineko erakusketa eta berbaldia

AINZANE IRIZAR


Eguenean, hilak 13, Durango-Zumarraga trenbidearen gaineko berbaldia egingo du Juanjo Olaizolak. Hurrengo bi asteburuetan, berriz, trenbide horren gaineko erakusketa jarriko dute Olanaren: argazkiak, dokumentuak eta beste-lako material ugari egongo da.

Azpeitiko Trenbidearen Euskal Museoko zuzendari Juanjo Olaizolak berbaldia egingo du Durango-Zumarraga trenbidearen gainean. Eguenean, hilak 13, izango da hori, Olanaren etxean, 19:00etan.

Eguenean bertan, trenbide horren gaineko erakusketa inauguratuko dute, eta zabalik egongo da hurrengo bi asteburuetan: maiatzaren 15ean eta 16an, eta hilaren 22an eta 23an, hain zuzen.

MATERIAL UGARI IKUSGAI

Trenarekin eta trenbidearekin lotutako era guztietako materiala egongo da ikusgai erakusketan. Material gehiena Azpeitiko Trenaren Euskal Museotik ekarriko dute. Beste hainbat argazki eta



1971. urtean ateratako argazkia; urte hartan bertan egin zuen azkeneko bidaia Durango-Zumarraga trenak.

ANTZUOLA 1900-1970' LIBURUTIK

dokumentu, berriz, hainbat herri-tarrek lagatakoak dira.

Besteak beste, ikusgai egongo dira honako hauek: bidaia-

rien txartelak, lokomotora egileen plakak, azkeneko bidaiako txartelak eta ordutegiaren taula bat. Bestalde, ikus-entzunezko

bat ere ikusi ahal izango da; Agustín Lete eta Bittori Lezeta herri-tarren laguntzarekin prestatu dute bideo hori.

UDALA

Udal Etxegintzaren etxeak eman dituzte

AINZANE IRIZAR

Aurreko asteko egunean eman zizkieten Udalak bultzatutako etxebizitzaren jabekide batzuei euren etxebizitzetako giltzak. Gainerakoek datozen egunotan sinatuko dituzte eskriturak.

Gauzak horrela, Udalak bultzatutako beste hamasei etxebizitza bukatu dituzte, eta 48 dira dagoeneko Udal Etxegintzak egin dituen etxebizitzak.

Udalaren helburua etxebizitza horiek bultzatuta zera da: herriko gazteei herrian bertan gartzeko aukera eskaintzea, eta aukera hori merkatuan dauden etxe-

bizitzena baino merkeagoa izatea. Horrela, bigarren helburua zen merkatu librean saltzen diren etxebizitzaren prezioa ere baldintzatzea eta ez igotzea.

BESTE 20 ETXEBIZITZA

Bestalde, aipatzekoa da Udalak beste 20 etxebizitza egiteko asmoa duela. Horixe aurreratu zuen Jose Angel Zabalo alkateak GOITBko Herriz herri saioan.

Beheko auzoan, maristen eraikina zegoen tokian, Gizarte Etxea egiteaz gain, etxebizitzak ere egiteko asmoa dute. Horietako etxebizitza batzuk Udalak bultzatutakoak izango dira.



Beste hamasei etxebizitza egin ditu Udalak Sagasti auzoan.

LABUR

Antzerki emanaldia gaur, egubakoitza

Emakume Ausartak antzerki taldeak, *Un busto al cuerpo* antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza. Gaueko hamarretan izango da emanaldia. Herri Ikastetxeko aretoan. Hainbat belaunalditako hiru emakumek euren gorputzarekin dituzten gorabeherak kontatuko dituzte.

Autoestimazioaren gaineko hitzaldia egunean, hilak 13

Antzuolako erretiratuek autoestimazioaren gaineko berbaldia antolatuko dute datorren asteko. Xabier Arrazola mediku ezagunak berba egingo du norberaren buruari izan behar zaion estimazioaren gainean. Olanaren etxean izango da berbaldia, maiatzaren 13an, eguna, 17:30ean.

Garitano bosgarren Gorbeiako mendi lasterketan


Julen Garitano korrikalari antzuolarra bosgarren sailkatu zen Gorbeiako mendi lasterketan, zapatu goizean. Maiatzaren 23an jokatu duen Aizkorriko mendi maratoin parte hartzeko asmoa dauka Julenek, eta lasterketa horixe prestatzen dihardu momentu honetan.

Aritz Berraondo finalera pasatu da, Leitzari irabazita

Iñigo Leitzari 22-17 irabazita, bigarren mailako eskuz baxakako finalerako sailkatu da Aritz Berraondo. Bi aste barru, maiatzaren 15ean, jokatu du finala, Galartza V.aren aurka. Oraindik ez dute zehaztu non izango den partidua. Berraondok bigarren mailan jokatu duen hirugarren finala izango da.

ELKARRIZKETA

JOSEBA LAMARIANO/SUKALDARIA

"Ikastaroa sukaldean ibiltzera ohituta ez dagoen jendeari zuzenduta dago"

AINTZANE IRIZAR

Idolaz euskara elkarteak antolatuta, sukaldaritzak ikastaroa eskainiko du Josebak, hil bukaeran. Maiatzaren 11n eta 12an eman behar da izena, udaletxean edo liburutegian. Ikastaroaren gainean berba egin dugu irakaslearekin.

Zer ikasi ahal izango dute ikastaro honetan parte hartzen dutenek?

Ikastaroa hiru eguneko izango da, maiatzaren 25etik 27ra; lehenengo egunean, entsaladak egingo ditugu, entsalada epelak eta hotzak; arrainarekin, ahatearekin...

Bigarren egunean pastarekin egindako platerak egiten ikasiko dugu: kaneloiak, lasagna, espinakak gainerretara...

Hirugarren egunerako, berriz, ez dugu ezer pentsatu; aurreko bi egunetan, denon artean erabakiko dugu ikastaroko azkeneko eguna zela antolatu.

Zeini zuzenduta dago ikastaroa?

Batez ere, jende gazteari, sukaldean ibiltzera ohituta ez dagoen jendeari; hala ere, askotan gertatzen da sukaldaritzarekiko zaletasuna dutenak etortzen direla horrelako ikastaroetara.

Behar besteko arreta jartzen diogu jaten dugunari?

Nik uste dut gero eta okerrago jaten dugula; aurrez prestatutako janari asko erosten dugu, eta horiek koipe asko izaten dute, gatzaz ere gehiegi... Garai baten, norberaren amaren kroketak ziren onenak; orain, denoi gustatzen zaigu berdinak, denok berdinak erosten ditugu eta. Arazoa da denok presaka bizi garela eta

"Batez ere, entsaladak eta pasta prestatzen ikasiko dugu ikastaro honetan"

sukaldean ibiltzeko denbora oso laburra izaten dugula.

Eman iezaguzu menu egoki bat, udako jatordu baterako.

"Denok presaka bizi gara, eta sukaldean ibiltzeko ez dugu behar besteko denborarik izaten"

Hasteko, tomatea hegaluzez beteta; ondoren, muxarra labean eginda, eta postrean, frutekin egindako gelatina bat.

KULTURA

Herriko bi irudi Andra Mariaren erakusketan

AINTZANE IRIZAR

Donostiako Elizbarrutiak Erdi Aroko eta Pizkunde garaiko Andra Mariaren 40 irudi bildu ditu, eta Donostian duen museoan jarri ditu ikusgai. Horietako bi irudi Antzuolatik eraman dituzte: bata, parrokiatik; bestea, berriz, Antiguako ermitatik.

Donostiako Elizbarrutiak Erdi Aroko eta Pizkunde garaiko Andra Mariaren 40 irudi bildu ditu, eta Donostian Elizbarrutiak duen museoan jarri dituzte ikusgai. Ekainaren 6ra arte egongo da zabalik erakusketa. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik erakusketa.

ANTIGUAKO ETA PARROKIAKO

Gipuzkoako hamaika herritako irudiak jarri dituzte ikusgai Elizbarrutiaren museoan, tartean, Antzuolatik eramandako bi irudi: bata, Antiguako ermitakoa; bestea, Errukizko Amaren parrokiakoa.


XIV. mendekoak dira bi irudiok, gotiko estilokoak. Anti-

guakoak metro bat pasatxo dauka eta parrokiakoa zertxobait txikiagoa da. Errukizko Amaren parrokiatik eraman dutena elizara sartu eta ezkerrean dagoen aldarean egoten dena da. Jatorriz, baina, dagoeneko desagertuta dagoen San Bartolome basilikakoa da Andra Maria hori.

SANTA AGEDAKO ANTIGUARA

Antiguako ermitan hutsune handia laga du Andra Mariak; hutsune hori betetzeko, eta erakusketak irauten duen bitartean, Santa Ageda ermitako Santa Anaren irudia eraman dute Antiguako ermitara. Gainera, Antiguako ermitan, urtero bezala, bi meza esango dituzte maiatzean, eta ezkontza bat ere egongo da. Aldaketa hori egiteko, Galartzako auzotarrei baimena eskatu zitzaizen eta hauek baiezkota eman zuten.

Gogoratu behar dugu orain dela urte batzuk lapurtu egin zutela Santa Anaren irudia eta orain dela gutxi azaldu zela. Orain, arreta handiz zaintzen dute irudia auzotarrek.



INIGO RAMIREZ DE OKARIZ

Ezkerrean, parrokiako Andra Mariaren irudia; ezkerrean, Antiguakoa.

HERRITARREN HITZA / Fernando Lete · Elkarrizketa


25 urte

Abiada handian joaten dira urteak; gezurra dirudi 25 urte pasa direnik, baina hala da. Trantsizio garai hartan, hamaika lagunek gogotsu eta ilusioz beterik ekin genion udaletxeko ibilbide berriari.

Sei EAJkoak (Pako Legorburu, Tomas Jauregi, Eliseo Garcia, Jose Luis Ena, Mateo Aranguren eta Jose Mari Kortabarria), Antzuolako Ezker Abertzaleak Jose Luis Arregi, Jose Angel Zabalo eta Fernando Lete, EMK-LKItik Jose Luis Zabalo eta PSOEtik Agustin Cabo.

23 urterekin, udaletxeko zinegotzi gazteena nintzen, eta

gaztetasunaren indarra neraman nirekin. Laster konturatu nintzen kanpotik gauzak errazago ikusten direla barrutik baino. Pako Legorburu alkate izendatuz, lau urteko lanari kementsu ekin genion. Batzordeak banatu ondoren, Kultura, Jaiak eta Irakaskuntzako partaide izan nintzen, eta esan dezaket esperientzia oso positiboa izan zela; bereziki gogoratzen



"Trantsizio garaian, gogotsu eta ilusioz beterik ekin genion ibilbide berriari"

ziren. Oroimen eta aipamen berezia Angel Murgiondo zena-

dut irakaskuntzan egin zen lan esker-garria; garai hartan bi eskola zeuden, Herri Eskola eta Ikastola, eta aurrera biderik ez zen ikusten bakarra egin ez ezker. Prozesua zaila izan arren, aurrera egin zuen; guraso, irakasle, udaletxe eta herritarren mobilizazio ugariaren ondoren, eskakizunak lortu

rentzat. Bere lan esker-garriatik, esan dezaket, baita ere, orokorrean, diru iturri gutxi eduki arren, lau urte haietan udaletxeak proiektu garrantzitsu batzuk aurrera eraman zituela: udaletxea berritzea, kolektorea, mediku etxea, frontoia, futbol zelaia... Hauetako batzuk aurreko legealdian hasitakoak ziren.

Bukatzeo, besarkada handi bat luzatu nahi diet lau urte haiek konpartitu zutenei, bereziki, gaur gure artean ez dagoen Agustin Caboren senitartekoei, eta gogoratu, Isidro Deunaren egunean zita bat daukagula.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Maiatzak 8
17:00: Antzuola-Landetxa (Gazteak)
Maiatzak 9
17:30: Antzuola-Lengokoak (2. erreg.)

EMAITZAK

FUTBOLA
Behobia 1 Antzuola 7 (Gazteak)
Antzuola 0 Elgoibar 1 (Neskak)

PILOTA
Deba Arroko Txapelketa
Olalde-Eskoriatza (eskuz nag.) ... 22-20
Olalde-Eskoriatza (eskuz kad.) ... 22-8
Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa
Mendizabal-Etxeberria (kad.) ... 22-0

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko maiatzaren 7a / 186. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



ARTXIBOA

Dantzarekin lotutako era honetako argazkiak etxean dituztenei udaletxera eramateko dei egin die Jai batzordeak.

Aurten umeen euskal jaia berreskuratuko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgetako Jai batzordea hasia da aurtengo Azoka Nagusiko jaietarako hainbat ekitaldi gertatzen. Besteak beste, ekainaren 27an urtetan egin gabeko euskal jaia berreskuratuko dute. Honekin lotuta argazki erakusketa ere egin nahi dute.

Aspaldi galduta egon den euskal jaia antolatzen dihardute, besteak beste, Jai batzordekoek. Ekainaren 27an izango da eta egun horretan dantzak izango dira ekitaldirik garrantzitsuenak. Baina horretaz gain, izango da beste ekintzarik ere: buruhandiak, esate baterako.

Hainbat herritako dantzariak jadanik eman dute baiezkoa Elgetako euskal jaietan parte hartzeko. Hala nola, Arrasatekoek, Aretxabaletakoek, Bergarakoek... Eta noski, Elgetako gazteak ere izango dira.

Egun horretan herrian 100 dantzari gora izango direnez, umeak etxeetan hartzeko gonbita ere egin nahi die elgetarrei Jai batzordeak.

ERAKUSKETA

Euskal jaiarekin lotuta, Jai batzordeak, dantza gaitzat hartuta, erakusketa bat gertatzen dihardu.

Erakusketa ez da erretratuen soilik izango. Irudiez gain, jantziak, dantzan erabili diren tresnak... ere ikusi ahal izango dira bertan.

Euskal jaietako dantzen gainekoak ez ezik, argazkiak dantza solte txapelketetakoak, erromerrien ingurukoak, dantzaldieta-koak, aurrekua egiten agertzen direnak... izan daitezke, eta horiek batu gura dituzte antolatzailerak.

Horretarako, herritarrei deia egiten diete argazkiak lagatzeko. Dantzarekin zerikusia duten argazkiak etxean dituztenek uda-

letxera, kultura sailera, jo behar-ko dute.

Erretratuak bertan hartu, zenbaki bat jarri eta datuak eskatuko dituzte arduradunek. Erretratu atera deneko urtea eta argazkiaren jabeak gogoratzen duen informazio osagarria, hain zuzen ere.

Erretratuaren jabeak baime-na emanez gero, argazkiak eskaneatu ere egingo dira eta horrela Udalaren argazki-artxiboa handitzeko balio izango dute. Horren harira, erakusketa amaitzeaz bat argazkiak etxera bidaliko dizkiete jabeek.

LUZAIDKO DANTZA

Bestalde, Jai batzordekoek pentsatu dute euskal jaiari amaiera egokia emateko Luzaideko dantzak jendaurrean egitea. Hori dela eta, ikastaro bat ipini dute abian nahi duten elgetar guztiek dantza hauek egiteko pausoak ikas ditzaten.

Euskal jaietan eurek ere dantza eginez parte hartzeko gogoia dutenek, horrenbestez, dantzak ikastera kiroldegira joan besterik ez dute. Ikastaroa barikuetan izango da, 19:30ean hasita.

GAZTETXEA

Hiru lapurreta izan dira gaztetxean

I.A.

Elgetako gaztetxeak ez dabilta zorteko azkenaldian. Hamabost egunen barruan hirugarren lapurreta egin dute bertan. Lapurrek dirua eraman dute sartu diren hiru aldietan. Salaketa ipini badute ere, oraindik ez dakite nor izan den lapurreten egilea.

Apirilean, hamabost egunen barruan, hiru aldiz sartu dira lapurrak Elgetako gaztetxean eta dirua eraman dute.

Gaztetxeko bigarren gelatik sartu ziren apirilaren 14an eta diru kopuru handia lapurtu zuten. Ondoren, apirilaren 28an, berriz sartu ziren eta orduan ere dirua ostu zuten.

Azkenik, joan zen barikutik zapaturako gauean, *Plazatik gaztetxera* txapelketako saioa amaitu eta gaztetxea itxi zutenean, berriz ere sartu ziren lapurreta egitera. Aurreko aldietan bezala dirua eraman zuten. Azken bi aldi hauetan lapurrak ate nagusitik sartu dira; beraz, bertako giltza daukatela uste dute gaztetxe-koek.

Apirileko lapurreta hauek dira orain artean gaztetxean egindak diren bakarrak. Izan ere, aurreko beste behin ere sartu ziren lapurrak gaztetxera. Orduan lapurrak bat apurtu eta bertatik sartu ostean, musika aparailua eraman zuten gaztetxetik.

Gaztetxeko kideek salatu egiten dute gertatutakoa eta Ertzaletatik ikerketa zabaldu du. Gaztetxean izan dira gertatutakoak berri jasotzeko asmoz, eta besteak beste Gazte Asanbladako hainbat kideekin hitz egin zuten.

Ertzainek gaztetxeko esku-dietenez lapurrak ez dira Elgetako gaztetxean bakarrik sartu. Beste hainbat gaztetxetan ere ostu dute azkenaldian. Hala ere, oraindik ezin da esan lapurrak izan diren edo ez.

KAFE TERTULIA ETA BIDEO EMANALDIA

Lapurretan egin eta dirua ostu ostean, Elgetako gaztetxekoek esku-diete lanerako gogorik kezkatuta Beraz, gazteek ekintzak antolatzen segitzen dute.

Gaur, barikua, maiatzak 7 bideo emanaldia eta kafe tertulia izango dira gaztetxean bertan arratsaldeko 18:00etan hasita.



Azken bi aldietan gaztetxeko ate nagusitik sartu dira lapurrak.

KIROLA

Garate eta Elortza lau t'erdiko txapelketatik kanpo geratu dira


I.A.

ETB Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketa aurrera doa. Oraindik maila bakoitzean bikote asko geratzen dira sailkapen fasea jokatzeko, baina elgetarrak jadanik kanporatu dituzte. Bestalde, Ozkarbikoek Debarroko Txapelketa jokatzeko dihardute.

Bi elgetarrek eman zuten izena ETB Kantxa lau t'erdiko pilota torneoan. Garatek eta Elortzak kade-te mailan jokatu dute partidu bana, eta galdu egin dutenez txapelketatik kanpo geratu dira.

Oraindik maila bakoitzean 44 bikote daude sailkapen faseko partiduak jokatzeko, beraz, fase honek ekainaren hasierara arte iraungo du. Juan Luis Ubera antolatzaileak esan digunez, pilotari on batzuk pasa dira aurten txapelketatik, baina oraingo ez dago faboritoen izenak ematerik.

Asteburu honetan ere hainbat partidu izango dira: barikuan 21:00etan hasita Elgetan, Soraluzen eta Aramaion. Zapatuan eta domekan, berriz, Elgetako pilo-



ARTXIBOA

Asteburu honetan ere lau t'erdiko hainbat partidu jokatu dira.

talekuan 16:30ean eta 11:00etan hasita, hurrenez hurren.

DEBARROKO TXAPELKETA

Bestalde, Ozkarbiko pilotariak Debarroko txapelketan ere badihardute. Gazteetan Garatek

eta Elortzak bi partidu galdu dituzte eta bat irabazi; beraz, zaila izango zaie sailkatzea, Nagusietan, berriz, sei pilotari ari dira txandaka. Hauek partidu bat galdu eta beste bat irabazi egin dute baina seguru aski sailkatuko dira.

LABUR

Datorren maiatzaren 23an ospatuko dute elgetarrek aurtengo Asentzio Eguna

Urtero moduan Asentzio Eguna ospatuko dute elgetarrek aurten ere, eta gaztetxeak hasiak dira prestaketa lanetan. Asentzioko zelaietan egingo den jaia maiatzaren 23an izango dela aurreratu digute antolatzaileek. Aurrez, maiatzaren 21ean, kontzertua egingo da gaztetxean jaia girotze aldera; domekan, berriz, ohiko ekitaldiak egingo dira Asentzion bertan. Besteak beste, hamaiketako, meza eta bazkaria izango dira eta dantzarik ere ez da falta izango. Gaztetxetik esan digutenez, aurten beharbada berrikuntzaren bat edo ekitaldi bereziren bat gertatuko dute.

Herriko kirol instalazioekin zer egin erabakitzeke lantalde bat osatuko dute

Herriko pilotalekuak eta kanpoko kantxak berrikuntza beharra dutela gauza jakina da. Hori dela eta, Udal Kirol Zerbitzuak lantalde bat osatzea erabaki du kirol instalazioekin zer egin daitekeen erabakitzeke. Udal ordezkariak gain, kirolarekin zerikusia duten herriko talde eta norbanakoak elkartu nahi dituzte talde horretan. Oraindik eguna zehazteke badago ere, maiatza eta ekaina bitartean bilera irekia egingo dute, eta herritarrek esandakoen arabera erabakiko dute zer egin kirol instalazioekin.

Zentro balioanizduneko obrak amaitzear daude, eta laster altzariak ipiniko dituzte

Domingo Iturbe kalean dagoen zentro balioanizduna gertatzeko lanak amaitzear daude. Aurki altzariak ipiniko dituzte, baina oraindik zeinek jarriko dituen erabakitzeke dago. Ondoren, Udalak kudeaketa lanak egin beharko ditu; besteak beste, zentroan egongo direnek ordaindu beharreko kopurua zenbatekoa izango den erabaki beharko dute eta baita bertan zeinek lan egin behar duen ere. Bitartean zentroaren gaineko informazioa nahi duten herritarrek udaltxera, gizarte laguntzailearengana jo dezakete.

ERRETIRATUAK

Urteko batzarra izango dute bihar, zapatua, erretiratuen elkarteko bazkideek Ozkarbin

I.A.

Erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideek herriko erretiratuei dei egiten diete urteko batzarrean parte hartzeko.

Bilera bihar, zapatua, hilak 8, izango da Ozkarbi elkartearen, erretiratuen ostean, pintxoak jateko aukera egongo da.

Antonio Iturricastillo elkarteko presidentek esan digunez, batzarrean urteko balantzea egin-

go dute; bai ekonomikoa eta baita aurreko urtean egin zituzten ekintzen gainekoa ere.

Bazkideek urteko kuota ekainean ordaintzen badute ere, orain emango zaie bazkideei diru kontuen berri.

Bestalde, Iturricastilloren esanetan, "Elgetako erretiratuok ez dugu ekintza askorik egiten elkar-te modura. Urtean pare bat irterera, bat uda partean eta bestea abenduan, Santo Tomasetan, Bilbora edo Donostiara. Erretira-

tuen mahai joko txapelketetan ere hartu izan dute parte Elgetako erretiratuek, baina gainontzean ezer gutxi egiten dugu".

ZUZENDARITZARAKO KIDE BERRIAK

Urteko balantzea egiteaz gain, elkarteko zuzendaritzarako kide berrien hautaketa ere egin nahi dute. Izan ere, kideren batek aurrez jakinarazi du zuzendaritza utziko duela, eta egokiena honen ordezko bat topatzea litzateke. Baina Iturricastilloren esa-

netan, "zaila izaten da jendeak bere burua aurkeztea zuzendaritzan lan egiteko, eta ez dakigu nola moldatuko garen".

Zuzendaritzako kideak noizean behin elkartzen dira. Baina herrian ez ezik kanpoan ere izaten dituzte bilerak. Debarreneko erretiratuen elkarteetako ordezkariak elkartzen dira batzuetan. Bestalde, Mizpirualde egoitzako zuzendaritzako bilertan ere hartzen dute parte elgetarrek.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

Maiatzak 1, zapatua

15:00: Makanaki-Spias Txapela

16:00: La Kokotxa-Txapela K. Piperrak

17:00: K. Piperrak-Vicios La Kokotxa

EMAITZAK

Makanaki 6 - Komando Piperrak 3

Txapela 4 - Vicios 5

Ariñiketa 1 - La Kokotxa 0

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



PANA DE ROKUA TJATEJXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Saeta futbol
taldea,
1956

Aurtengo udaberrian ere herriko futbol txapelketa jokatu da Ipintzako futbol zelaietan. Azken urteotan harrera bikaina izan duen txapelketa izan da, herriko koadri-la mordoa lehiatzen baitira Ipintzan. Gizonezkoen taldeak ez ezik, nesken talde ugari ere hartuko dute parte txapelketan. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Beraz, sasoi puntua hartzeko garaia heldu zaie urtean kirol gutxi egin dutenei...

Hala ere, futbol txapelketak ez dira gaurko kontua. Betidanik antolatuta dira eta herriko txapelketetan aritutako jokalaririk asko eta asko Bergara Kirol Elkarte-ko taldeetara pasa dira gero. Herriko talderako fitxaketak egiteko harrobi ezin hobeia izan dira aipatutako txapelketak.

Alboko argazkian Saeta futbol taldea ikus dezakezue, 1956. urtean. Taldearen izena Di Stefano orduko jokalaririk onenaren omenez jarriko zuten agian. Argazkikoek 14-16 urte bitartean izango zituzten. Argazkia Labegaraletako zelaietan atarata dago. Ezkerretik eskumara:

Zutik: Vicente Zurbano, Jabier Beistegi, Pedro Larrañaga, Pedro Egaña, Mateo Salaberria, Juan Carlos Garitano eta Roman Durana.

Makurtuta: Victoriano Gallastegi, Juanito Iturralde, Manolo Igartua, Luis Untzurruntzaga eta Jesus Elkoro.

Argazkia: Luis Untzurruntzaga.

**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Elizako atean esaldi hau dago eta elizpean frontoia.
Ze auzotako elizan?

BERGARAROSPETSUAK

**Serafin
Esnaola (eta 2)**


KOLDO PEREIRA

Euskal kleroaren berregituraketan funtsezko papera izan zuen On Serafinek. *El clero vasco en la clandestinidad* eta *Trintxerpe, el cierre de una iglesia* liburuak argitaratu zituen. Sabino Arana fundazioak Bizitza Osoko Ibilbidea saria eman zion 1999an, frankismo garaian kristau-elkartearen alde eta herritarren eskubideen alde hark egindako ekarpen garrantzitsua aitortuz.

Erretiroan Bergara utzi eta Donostiara joan zen bizitzera. Besteak beste, Pol-Poleko Gaztetxoaren sortzailea eta fundatzailea izan zen eta Gure Ametsa elkartearen sorreran ere lan bikaina egin zuen. Bergarako herriak ez zuen erraz ahaztu. Sanantoniotarrak, Pol-Pol Mendizale taldeak, eta abarrek egin zizkioten zenbait omenaldiren ostean, Bergarako Erreilenoaren eta Tostoiaren Kofradiako Ohorezko kofradiakide izendatu zuten 2002ko irailaren 15ean.

Donostian hil zen 2002ko azaroaren 3an. Bergarako Udalak herriko seme izendatzea eta San Antonion egingo den urbanizazio berrian plaza edo kale bati haren izena ematea erabaki zuen 2003ko martxoan.

*Begarako Udalak
herriko seme
izendatu zuen 2003ko
martxoan*



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|--|--|
| <p>1.
Nork egin du Goiko Estazioko eraikina hertzeko proiektu teknikoak?</p> <p>A/ Alvaro Perez de Amezagak.
B/ Iñaki Berasategik.
C/ Mikel Larrañagak.</p> | <p>2.
Zenbat txirindulari daude Lokatza Ziklismo Eskolan?</p> <p>A/ Hogei.
B/ Hamabi.
C/ Hamasei.</p> | <p>3.
Nor izan da Bedelkarrek antolatutako margo lehiaketako irabazlea?</p> <p>A/ Mikel Araiztegi.
B/ Antton Arrillaga.
C/ Jon Balentziaga.</p> |
|--|--|--|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSU CORDOVILLA rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Josu!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: Hiraburu-Txiki/ Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

San Miguel garagardoa

12x25 cl.

3,60€

599 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO

ILE APAINDEGIEN GIDA

DISDIRA ILE APAINDEGIKOAK

'Gehien kalean ikasten dugu. Jendeak eramaten dituen orrazkerak ikusi eta ideia berriak hartzen ditugu.'

Zenbat urte daramatzazu orrazten?
Hamabost urterekin hasi ginen orrazten.

Modaren jarraitzaileak zarete?
Bai, noski, gure lanerako moda jarraitzea oso garrantzitsua da. Azken joeren berri jakiteko urtean lau edo bost aldiz kanpora irteten gara. Lan egiten dugun etxeek Euskadi mailan antolatzen dituzten ikastaroetara ere joaten gara. Dena dela, gehien kalean ikasten dugu. Jendeak eramaten dituen orrazkerak ikusi eta ideia berriak hartzen ditugu.

Zer-nolako bezeroak dituzue?
Denetarik bezeroak dauzkagu: gazteak, nagusiak, mutila, neska eta umeak.

Jendea ausarta al da?
Bai, jendea ausarta da. Orain orrazkera desberdin asko dago. Lanean hasi nintzenean hiru orrazkera zeuden bakarrik eta jende guztiak ilea berdin eramaten zuen; orain, berriz, bakoitzaren estiloaren arabera mozten da ilea. Koloreak ere garrantzi handia dauka gaur egun, gure ile apaindegian gehien egiten duguna kolorea da.



Disdira ile apaindegiko lan taldea

Jendeak zaintzen du ilea?
Jendeak geroz eta gehiago zaintzen du ilea. Gaur egun itxurak garrantzi handia dauka. Guk gehienbat Lorea' l etxeko produktuekin lan egiten dugu eta bertako tratamenduak erabiltzen ditugu bezeroen ilea zaintzeko. Puntualki beste etxe batzuk ere erabiltzen ditugu: Wella, Schwarzkopf...

Bezeroak ideiak garbi etortzen dira?
Denetik dago. Batzuek oso garbi daukate zer nahi duten eta beste batzuek gure esku lagatzen dute.

Ile apaindegia bakarrik edo beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?
Orain ile apaindegia bakarrik daukagu.

disdira

- Masterreka 7 - Bergara
- 943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloretan

Aukera onenak

ADATS

- Herri lagunak 4 - Bergara
- 943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua



- Boni Laskurain 2 - Bergara
- 943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

BEROTZI

PELUQUERAS

- D. Fleming 5 - Bergara
- Tel.: 943 76 53 15
- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

IDOIA

- Espoloia 4 - Bergara
- 943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruzal garbitzea
- Solariuma

ileak

- Ozaeta 3 - Bergara
- 943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

- San Pedro 23 - Bergara
- 943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

- Bolu 51 - Bergara
- 943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

- San Pedro 6 - Bergara
- 943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

- Ibargarai 42 - Bergara
- 943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

- Zurradero 2
- BERGARA
- 943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

- Fraiskozuri 4 - Bergara
- 943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea